

Aitor González txirrindulariak Galiziako Itzulia irabazi du

Aitor González ermuarrak irabazi du XIII. Volta a Galicia, Aluminios Cortizo taldeko kide bezala lehiatu duen lasterketa bakarrean.

Bere taldearekin (Lizarte nafarrarekin) arituko da aurten hirugarrenez, eta denboraldia bukatu baino lehen, talde profesional baten deia jasotzeko esperantza du.

Duela hilabete lehiatu zen Galiziako Itzulia —irailaren 19tik 21era—, baina garaipen garrantzitsua izan da Aitor González txirrindulariarentzat. Lizarte taldeak ez zuen Itzulian parte hartu behar eta Padroneko Aluminios Cortizorekin lehiatzeko baimena eman zioten ermuarrari.

Lehen egunean, goizean, erlojupeko igoera burutu zen Santiago de Compostela ondoko mendate batean, eta Aitorrek irabazi zuen. “Azken momentura arte ez nuen jakin irabazlea nintzen edo ez, baina etxekoei deitu nien denbora ona egin nuela jakin bezain laster. Peio Goikoe-txea ermuarra ere bertan egon zen nirekin, eta urduri samar ipini ginen biok”. Arratsaldean, berriz, ohiko lasterketa egin zen Santiagotik gertu eta beste taldekide batek kendu zion lidergoa.


Hurrengo egunean, irailaren 20an, Coruñan lehiatu ziren, eta 15 txirrindulariz osatutako taldetxo heldu zen helmugara lehenen, tartean Aitor. Liderra ez zenez taldetxo horretan heldu, Aitorrek hartu zuen berriz lidergoa. Eta azken egunean,

Sanxenxon, postuari eutsi eta garaipena lortu zuen.

Itzuli garrantzitsua da eta oso pozik dago Aitor lortutako emaitzarekin, baina aurretik ere hainbat lasterketa irabazitakoa da. “23 urtez azpiko kategorian Euskadiko txapelduna izan nintzen duela bi urte, eta lasterketa baina irabazi izan dut Murgian eta Antzuolan hurrenez hurren. Hala ere, hau izan da garaipen garrantzitsua”, dio Aitorrek.

Talde bila

Otsailean hasiko den denboraldian ere Lizarte taldearekin arituko da, hirugarrenez, baina hurrengo urtera begira, talde profesional baten deia jaso nahiko luke. “Lizarte taldearekin ere horrela gertatu zen. Zuzendaria, Gorka Belokik, deitu zidan eurekin jarduteko, eta animatu nintzen. Debabarrena taldean nenbilen orduan, baina adinagatik kategoriaz aldatu behar nuen, eta egutegi hobearen zuzenbidea behar nuen. Orain ere, baten batek deitzea espero dut, profesionala letara pasatzea gustatuko bailitzaidake”. Zoritxarrez, badaki hori ez dagoela beste



esku, “oso denboraldi ona egin dezakezu, baina baten batek eskaini behar dizu kontratua”. Hori gertatu ezean, datorren urtea bukatutakoan txirrindularitza utziko luke, eta lanari edo ikasketei ekin. Ahal dela, kirolarekin zerikusia duen zerbituetan.

Bizitza erdia darama bizikleta gainean —23 urte ditu eta 12rekin hasi zen—, eta aurten hainbat lekutan egon da, otsailetik irailera bitartean: Extremaduran, Andalu-

zian, Murtzian, Gipuzkoan, Valentzian... Itzuliei dagokienez, Toledon, Valentzian, Nafarroan, Frantzian, Leonen eta Zamoran: “la astebururo izan dugu lasterketa”. Lauan ibiltzea baino, mendateak nahiago ditu, batez ere igo-tzea: “Bajatzeari askotan ez da erraza. Aurten hobeto ibili naiz maldan behera, baina Leonen jausi nintzen eta beldurra hartu diot. Konfiantza hartu beharko dut berriro”.

Dorleta Vidal

Caperos

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08